



UDAKO ARTE ERAKUSKETA

LEKEITIO 2024





LEKEITIO
geure
nortasunetik

Uztailaren 9tik 14ra

Iñigo Barainka Pajón

“Picasso pintura lanaren 50 zirkiborroak”

Uztailaren 15etik 21era

Jonan Gomez Barrenetxea

“Apirainak 2024”

Uztailaren 22tik 28ra

Unai Madariaga Zabala

“AFGDFG”

Uztailaren 29tik abuztuaren 4ra

Maria Teresa Herrero Castiella

“Lurra eta itsasoa”

Abuztuaren 5etik 11ra

Juan Ramos Diaz

“Itzulera”

Uztailaren 9tik 14ra

Iñigo Barainka Pajón

“Picasso pintura lanaren 50 zirriborroak”

Iñigo Barainka Pajón (Lekeitio, 1966)

Erakusketa hau Picassoren “Gernika” koadroan oinarrituta dago. “Gernika” margolana, errepublikako gobernuak egindako eskaera bat izan zen. Gernikari egindako bonbardaketa irudikatzen du, gernikarrak bizitako beldur, min, sufrimendu eta heriotza.

Picassok “Gernika” margotu aurretik egindako 50 zirriborroak batzea lortu ditu.

Baina, nola burutu zuen Picassok lan hau? Zertan inspiratu zen?


Badirudi zirriborro horiekin galdera horiei erantzuten saiatzen dela.

Zirriborroak akuarelaz eta akrilikoz margotu eta ikusi nahi dituen ororentzat erakutsiko ditu erakusgela honetan. Koadroa aztertuz, margolariak kontatu nahi izan zuena gehiago ulertaraziko du.

IBILBIDEA

Gaur egun, 5-13 urte bitarteko umeei pintura klaseak ematen ditu Lekeitioko Azkue ikastolan, Markinako Berakruz ikastolan eta Ispasterreko eskola publikoan.

Horretaz gain, muralak eta barne diseinuko pintura lanetan ere aritzen da. Hau izango da lehenengoko erakusketa lana.



Uztailaren 15etik 21era

Jonan Gomez Barrenetxea

“Arrainak 2024”

Jonan Gomez Barrenetxea (Caracas, 1969)

Arte Ederretan lizentziatua, EHUn 1992an, ikus-entzunezko espezialitatean, baita ere Bristol Polytechnicen, Ingalaterra, egin zituen ikus-entzunezko ikasketak. Plastika eta Ikus-Hezkuntzaren eta Marrazketa Teknikoa arloetako irakaslea Lauro Ikastolan, Loiu, 1992tik.


ERAKUSKETAK

Taldeko erakusketak:

- 1991/ Bilboko La Merced aretoan, Arte Ederretako Ikus-entzunezko ikasleen erakusketa.
- 2006/ Bilboko La Bolsa Barrutian, Bizkaiko Foru Aldundiko “Bizkaia Maitea” pintura lehiaketan Akzesit saria.

Banakako erakusketak:

- 1991/ Lekeitioko Barandiaran aretoan eta Leioako San Bartolome kultur etxean.
- 1992/ Lekeitioko Gau Txori tabernan.
- 1997/ Lekeitioko Eusebio Erkiaga kultur etxean.
- 2006/ Bilboko Udaleko, Deustuko, Begoñako eta San Frantziskoko barrutietan.
- 2007/ Bilboko Piropo tabernan.
- 2014/ Bilboko Lepanto tabernan.
- 2015/ Bilboko Sokoa tabernan.
- 2024/ Bilboko Kasko jatetxean.



Uztailaren 22tik 28ra

Unai Madariaga Zabala

“AFGDFG”

Unai Madariaga Zabala (Bilbo, 1996)

Proiektu hau subkontzientetik datorren praktika bat da. Erabili duen metodologia inprobisaziotik sortu da, hasierako ideia zehatzik gabe mihiseari ekinez eta bertan sortzen zena behin eta berriro apurtuz, beti bide berri bat bilatuz. Horrek pareidolia baten antzeko begirada bat hartzera eraman du eta, azkenean, pertsonaia edo erretratu erdi figuratibo baten bilaketan amaitu du (ez beti).

Geroago, lana perspektibaz begiratu ondoren, konturatu da subkontzientetik heldu diren ideia guztietaz. Pintura “viscerala” egiten du. Pisutsua, masaduna, agresi-boa... baina aldi berean apala eta konprometitua. Pintzelada bortitz batek fereka bat dakar gero, eta alderantziz.

IBILBIDEA

Diseinuan graduatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Pinturarekin zerikusian bere ibilbidea oso laburra da. Artdemia 2020 erakusketarako hautatua. Musikaria Ezezez taldean.



Uztailaren 29tik abuztuaren 4ra

Maria Teresa Herrero Castiella

“Lurra eta itsasoa”

Maitte Herrero Castiella (Madrid, 1963)

Arte Ederretako ikasketak hasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean. Ondoren, ikasketak utzi zituen Calahorrako (Errioxa) udal akademietan lana egiteko, haur eta helduentzako marrazketa eta pintura tailerrak ematen. Marrazkia eta pintura dira bere adierazpidea, gustukoena duena eta bizirik sentiarazten duena.

Bere ibilbide artistikoan hainbat gai eta teknika jorratu ditu: oleo, akrilikoa, grafitozko eta kolorezko arkatzak eta errotuladoreak. Gaur egun, Euskal Herrian bizi da, pintatzen eta bere ezagutzak transmititzen jarduten du.

ERAKUSKETAK

- 2018/ Calahorrako La Comedia tabernan “Husmclenes”.
- 2019/ Logroñoko Ibercaja kutzako erakusketa aretoan “Natura eta Geometriak”.
- 2019/ Santo Domingo De La Calzadako Ibercaja kutzako erakusketa aretoan “Natura eta Geometriak”.
- 2019/ Calahorrako Cafetin tabernan “Pinturak”.
- 2022/ Lekeitioko Eskolape aretoan “Maskoten erretratoak”.



Abuztuaren 5etik 11ra

Juan Ramos Diaz

“Itzulera”

Juan Ramos Diaz (La Garrovilla, Badajoz, 1956)

Lekeition bizi da duela 48 urtetik. Pintore autodidakta da. Bere bizitza artistikoan dozena bat erakusketa kolektibo baino gehiago ditu Getafe, Madrilen, Lekeition, Durangon eta Arrigorriagan, besteak beste.

Arte plastikoen hainbat lehiaketetan parte hartu du, hala nola, 1982an Bilbon Eusko Jaurlaritzak egin zuen arte plastikoen lehen lehiaketan, 1985ean Bilboko hiribilduaren lehen lehiaketan eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Bizkaiko Artea arte plastikoen lehiaketan, eta 1987an Meridako (Badajoz) Hezkuntza eta Kultura Saileko arte plastikoen lehiaketan hautatua izan zen.

Omenaldi batzuetan ere parte hartu du, esaterako, 1989an Ataunen (Gipuzkoan) Jose Migel Barandiaran antropologo eta linguista euskaldunari egindakoan, eta Simon Bolivar omentzeko egin zen erakusketa ibiltarian, Zior-tza-Bolibarren hasita, Lekeitio, Gernika, Portugalete eta Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan amaituta.

ERAKUSKETAK


Taldeko erakusketak:

- 1985/ Lekeition, Carmen Martin zeramikariarekin.

Banakako erakusketak:

- 1986/ Meridako (Badajoz) kultur etxean.
- 1987/ Meridako Liceo Emeritense aretoan.
- 1988/ Haroko Caja Rioja aretoan.
- 1990/ Garrovillako kultur etxean.
- 1999/ Esparragalejoko kultur etxean.









Eskolape aretoan

18:00etatik 21:00etara

gehi artistak zabaltzen duen orduetan